


JON GOTZON ETXEBARRIA

I  
N  
O  
M  
I  
N  
E  
T  
U  
O.



D O M I N E !

1  
3

εἰς τήν ἐλευθερίαν

Barriro esi daigun ludijaren gerrija.  
EZ bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.  
Itxaruak berua euzkotarren ontzija  
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxa-  
sora, 146. orrialdea. - Bilbo, 1931)

Λόγος δυνάστης μέγας ἔστιν  
(Gorgias, "Helena" 8-9)

42839

JON GOTZON ETXEBARRIA



I N N O M I N E T U O ,

D O M I N E !

Euskal Biblioteka Labayru



1011681  
LITERATURA / N. 1278

εἰς τὴν ἐλευθερίαν  
τῆς πατρίδος

liburu-sorta

GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko gordailua: BI - 1.179 - 89

LANKOPI.-Colón de Larreategi, 16.-EILBO

## IN NOMINE TUO, DOMINE

Adhuc iuvenis cum essem, ad longam  
vitam futuram animum parare cupi-  
ens, magnalia tua, Domine, canere ve-  
hementer optabam. Eratque unum ver-  
bum tota die animo meo insitum: Do-  
mino meo psallam quamdiu fuero, si-  
cut legitur in psalmo (psal. 145). Et  
ad reliquum vitae nihil aliud som-  
niabam nisi perpetuum psalmum no-  
mini tuo dicare.

Sed "cuius vult miseretur, et quem  
vult indurat" Deus (Ad Romanos, 9,  
18) et "voluntati enim eius quis  
resistit?" (Ad Romanos, 9, 19). Igitur

pro psalmo dulciter sonanti stri-  
dor est factus in ore meo et pro  
laetitia lacrimae amarae in imo  
corde effusae.Iamque vix erat lo-  
cus spei nec quo profugerem temp-  
tare valebam.Ad crucem a Te missam  
portandam solus imbellisque,versus  
quos olim composueram usque animo  
volvebam:

"Emon eidazu  
gurutze pisu,  
ta zatoz,Atsegin,nigaz!"

(Da mihi onus crucis ac veni mecum  
Dulcedo mea!)

Nec tamen vultus tuus mihi omnino  
apparebat.Tunc dixi:

... ... ... ...  
"Urratu indar,Jauna,  
ta aizto zorrotzaz bat  
ekarri nigana,  
azken lekuan behintzat  
zure esku biguna".

Et quamvis acerbus erat dolor,mag-  
na advenit mihi postremo suavitas,  
namque manum tuam mitem sensi,per  
amicarum manus,quae sanguinem mihi  
lavere pie certabant.Da eis,Domine  
iugiter gratiam tuam;et mihi sem-  
per IN NOMINE TUO,DOMINE,SPERARE.

Gernika,  
1989,maiatzia.

-----  
Maribel Extremiana Pilar Herreras

Itziar Otaola M.Luisa Caro

Begoña Maguregi Bego.Intxausti

Mertxe Elorriaga Onintza Zabala


Osane Elorriaga Aran.Kamiruaga

M.L.Sologaistua Pili Oregi

Miren Gorostizaga Josune Unanue  
-----

Eskerrik asko bihotz-bihotzez eta

Jaungoikoak bedeinka zaitzatela!



### DEADAR ISILA

Ezbehar mingotsak  
ezpata zorrotza  
barneratu eustan  
zulatz bihotza.

Odoletan blei blei  
nabilkizu gero,  
saminaren minez  
bihotz-buruz ero.

Goizetik gauera  
didar bizi baten,  
saminaren minez  
isila den arren.

## OTOIA

Zeru-lurren Yaube on  
 eta jakituna.  
 Sastakai antzo sartu  
 da zure naikuna  
 nire bihotz-erdian.  
 Urratu indar,Jauna,  
 ta aizto zorrotzaz bat  
 ekarri nigana,  
 azken lekuan behintzat,  
 zure esku biguna.

## AMA

Ama,nun zagoz?Gure Eleiz Ama...  
 Ama,nun zagoz?Entzun euskaldun  
 baten negarra.Zure semea  
 zure irrikaz bait dabil,itun.  
 -"Super hanc petram..."Ta arri-azpian  
 Euskalerria,il-aginean.  
 "Usque in aeternum" biziko dira  
 Eleiza,arria...ta gu azpian?  
 -"Artegi baten behar ditut Nik  
 ardi guztiak.Ortik kanpora  
 ilgo zarie gosez,leizean".  
 Otsoa dator gure gainera...

Artzainak iges...Goiko Jaun ona!  
 Artaldetik at larratzen nozu  
 ala,artzain barik,morroi zitala  
 gure gidari ezarri dozu?  
 Ene Jaungoiko:siñesten zaitut.  
 Jauna,begira nere ituna.  
 Zure graziaz gorde nagizu  
 beti fededun...ta euskalduna.  
 (1957)

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIARI  
 Ortzirik ez,leizerik ere ez zan  
 aldian  
 Jaungoikoaren naian jaioa zin-  
 tzazan.  
 Ama zorioneko batek bete eban  
 Goikoaren ametsa gizonen artean.

Garbitasun-distiraz lurbira osoa  
argiz betetzen dozu.Gizadi gai-  
xoa  
argi horren laguntzaz zerura ar-  
tez doa.

Harek ere damotso behar daun be-  
roa.

Izarren argia-antzo,urteen urte-  
az  
heldu iaku zurea lurrera.Gogoaz  
usmautako egia,egiaz egiaz  
dazaugu,eun urtetik hona,fedea-  
gaz.

Harrezkerro garbien ispilua zara;  
gizon guztientzako eredu goita-  
rra.

Zu ezautzeak poza dakarsku gogo-  
ra.

Zugana dau kristinau bizitzak  
joera.

Orroaka baitabil beti lur guzti-  
an  
gure etsaia,zintzoak ondatu gu-  
rean,  
guztia okertu ta loitzeko zori-  
an.  
Ludi osoa dago gudu gogorrean.

Itsaso amorratu ta loiaren ura  
 atxa jo ta apar zuri bihurtzen  
    da,gora  
 igoten dabelarik.Holango Zu za-  
    ra.  
 Jaunan graziak urten bait eutsun  
    bidera.  
 Agur Erregin hori,gure itxarope-  
    na.  
 Bihur egizuz zure begiok guga-  
    na.  
 Jainkoaren ta gure ama guztiz o-  
    na,  
 entzun egizu gure otoitz beroe-  
    na:

Salba gaizuz munduko ekaitz go-  
    gorpean  
 gaudenok;hartu gaizuz zure maga-  
    lean.  
 Gure gorputz- animak zaindu lur  
    honetan  
 ta ez eiguzu itxi jausten arris-  
    kuan.

(1956)

PAX

*Et pax Dei quae exsuperat omnem sensum, accipiat cor vestrum et intelligentias vestras (Pilip.4, 7)*

Poz-pozik nago:

Jainko-grazia

orduoro dago nigan.

Nire zeruan

beti argia

naiz gaba naiz eguna izan.

Nire menditan

lore bigunak

ekaitzak gogor jo arren.

Nire ibarretan

badago ura

beti kantari ta garden.

Munduko bide

guztiak nire

ditut.Zoraturik nago

pozaren pozez,

Jainko-grazia

beti niregan bait dago.

**GABON**

Gabon-gabean  
goian elurra.  
  
Gabon-egunez  
baketen lurra.

Gabon-gabean  
Jainkoa jaio.  
  
Gabon-egunez  
gu poz-jario.

**GABON GAUEAN**

Gaur Jesus jaioko da.  
Nun jaioko ote da,nun?  
  
Arin gure bihotza  
atondu dagiogun.

Lurkoiarentzat ez da  
holako pozgarririk.  
  
Nun jaioko ote da,nun,  
gure barnean ezik?

Zeru-lurreko Jauna  
da ta gure Egilea.  
  
Garbitu ta berotu  
daigun gure barnea.

### MAITASUN-ITURRIA

Zure aurrean nagola,  
 Jesus maite-maitea,  
 nabaituten dot atean  
 ez daurkidan bakea.

Maitasun bilaka nabil  
 lur neketsu honetan.

Maitasun hutsik, ordea,  
 ez dago gizonagan.

Oinazez nastauta dago.

Bihotza saminduta  
 datza maitetasun-ezaz.  
 Ni nagon itsútuta!

Jesus Jainko betikorra,  
 maitasun-iturria:  
 Zeu zara asetu ta ikuzten  
 daun ur geza-garbia.

## BETIKO BAZKO

Jainko goren betiko,  
zure maitasun  
handiarren munduon  
ipini nauzun  
  
Aita gozo ta zuzen,  
nigazko lagun  
ditudan Izadi ta  
  
Gizadian Jaun!

Emaizkidazu beti  
bihotz beroa  
eta esku leuna  
lore gozoa  
eta arantza zorrotza,  
poz ta malkoa  
berdin maitatzekoak,  
lagun Jainkoa!

Hil nadinean etor  
 Zeu nire bihotz  
 erre ta esku urratu  
 ok betirakotz  
 Zuregan osatzera.  
 Neurribako Poz,  
 bizi nadila zure  
 betiko Bazkoz!

"ERGO TU ES REX?"

Giza-handinaiak oro-nausitza  
 erakarri gura eskuetara.  
 Barru-kanpoetan oro menpera  
 guraz harrokeri darabil giltza.  
 Inoren eritziz azken badatza  
 ere,begi-lausoz,jartzen da bera  
 lehenen.Harroak ezin ingura  
 bazterrak ta bere burua hutsa.  
 Kristo,aldiz,otzan ta ezti dager.  
 Bihoaz gizonak grinei jarraituz.  
 Haren agintea onarren eder.

Buru-ukatuz azken.Gizonak aulduz  
 indar ta naikeriz hor dira hiltzer.  
 Giza-harro-utsari Kristo nausituz.

"DEUS MEUS,UT QUID  
 DEREQUISTI ME?"

Egun bateko poz urria eman  
 didate gidaldrek joan-etorriz.  
 Nor naizen oldoztu ez ta arinkeriz  
 dihardute beti nor ta zer diran.

Ez diet lagundu nor-erregetzan,  
 ez ditut asetu handinai-ogiz;  
 akar egin diet hizketa larriz.  
 Lotu naute beren ezezpenean.

Masaileko-irainez narabilte egun.  
 Nire zer guztiak zotz dagizkite.  
 Edaritzat eman beren behazun.

Bitartean Zuk ni ahantzi ote?  
 Lurra ikaraz,zeru-aldea ilun.  
 Makur nadin,zure gogoa tente.

"ET GAVISI SUNT GAUDIO MAGNO VALDE"

Urrundik etorri ta bidearen  
 nekez atsedena dute beharra.  
 Jainkoa aurkitu ez ta negarra  
 Erregeen barruan hasi da sortzen.

Etxeko epela urruti zuten,  
 ezezaguna bertako lurra.  
 Soin ta gogoetan neke minkorra.  
 Beso ta begiak norantza zuzen?

Berehala izarra dute gidari.  
 Bihotza dardarez,begiak bizkor,  
 Josu haurra zaie zeru-ikuskari.

Urrutiko lurrez,bidea gogor,  
barnea minetan,ene errukarri,  
etorri zakidaz,Josu,izar pozkor!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Jainkoa sortu zaizu Belen-en;  
askatasuna Hark bai emanen!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Horra Jainkoa eginik gizon:  
urrun negarrak,izan zorion!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Ahozpez gorets Jainko Umea,  
Berau bait duzu Salbatzailea!

ALLELUIA EUSKAL HERRIA

Aingeruak hitz:"Gaudium magnum",  
Hark gordeko zu beti euskaldun!

## JAUNARTZE

Jaungoikoa nigana

dator Osti zuri

eginda.Nire gorputz-  
bihotzak garbi itzi,

Jauna,ta munduaren

aldeko opari

izanda gero hartu

naizu Zeutzat beti.

## JAUNGOIKOAREN BILA

"Badago oraindik zu baitan Jaun-  
goikoa aurkitzeko bide bat:amai-  
tzen diren gauzen kenketa,alegi-  
a.Irudigileak egurrean erregeren  
aurpegia bilatzen duenean,amai-  
turik dauden eta aurpegia ez di-  
ren beste atalak bazterrera uz-  
ten ditu".

(Cusa-Ko Nikola, "De quaerendo  
Deo tractatulus",V)

Zure arpegia kausi beharrez,  
lan dezadan, setaz eta astiro,  
bizitza-enborra;eskuz,maitero,  
zur lantzen mailuka,bihotz-zizelez.

Zure hazpegiak irarri indarrez,  
lurrera ditzadan ezpalak oro,  
-lur-neu-zalekeri huts eta ero-,  
begizta zaitzadan zuhaur zarenez.

Atseden-aldia egin dezadan:  
bularra lasaituz arnasa berriz,  
begiak poz,amets-zorabioan.

Azken ikutuak esku dardartiz:  
jo dut egur-muin sakon-hezean,  
nire eskuetako odolez bustiz.

**GURUTZE-BIDEA**

## SARRERA

Nazan guztia ezerezetik  
 atara ninduzun Jauna:  
 Nire utsean murgil eginik,  
 biurtu nadin Zugana.

## I

Bizitza zeran orri emoten  
 deutsue erio-epaia.  
 Irazakiak Irazailea  
 lotu ta azpiratu naia!  
 Nire bizitza  
 beite eriotza,  
 zureak biziazia.

## II

Gurutz astuna gorputz-gainean,  
 Kalbari mendira zoaz  
 gaizkile baten gisa.Ni,barriz,  
 bizi atsegin gozoaz.  
 Emon eidazu  
 gurutze pisu,  
 ta zatoz,Atsegin,nigaz!

## III

Jesus auldua,lenengoz jausi  
 da gurutzaren azpian.  
 Orrenbesteko neke-aldia  
 gugaitik izan zenduan.  
 Gaurtik aurrera,  
 zure ondora  
 noala beti,jaustean!

## IV

Ama-Semeak alkar ikusi:  
Lagunabarra jaramon  
barik aurrera.Zuk zoritzarra;  
eurak,ostera,zorion!  
Etzara bakar  
joango.Negar-  
pozeten nik Zuri itxaron!

## V

Lurbira ibilierazten dauan  
Jaun alguztidunak ezin  
eroan gurutz bat,akiturik.  
Poz eta nekeetan bardin,  
Zu laguntzeko  
beti artuko  
dot nire gurutzea arin.

## VI

Beronika arek Zuri mosua  
 garbitu ta Zuk berari  
 zapia bete zure irudiz.  
 Lagunak muzin?Neu ari  
 naitela,apal,  
 zurekin leial  
 ta zakidaz Zeu emari!

## VII

Bigarren aldiz Jesus lurrean,  
 oinazearen oinazez.  
 Nire eroriak Bera bultzatu.  
 Badarabagit:obenez  
 bea jo arren,  
 beti jaikiren  
 maitasunan maitasunez.

## VIII

Jerusalem-go alabok,Niri  
negarrik ez,Jaunak diño.  
  
Zuokaitik,bai,eizue negar.  
  
Egur igarra nazaño  
barrua intziriz  
ustuko dot,biz  
daiten guna zeruraiño.

## IX

Irugarrenez Jesus lurrera  
erori da il baino len.  
  
Amaika bidar jausiko naz ni,  
oraindino,or-an-emen.  
  
Jagiko al naz,  
Zurekin Aintzaz  
betiko gozatu naiten.

## X

Danen aurrean Jesus Maitea  
 ipini dabe biloisik.  
 Garbitasuna bera dan Jauna!  
 Gizon zar,alde nigandik!  
 Sar,Jauna,ene  
 barruan,bene-  
 benetan Zu biurturik!

## XI

Zeru ta lurra ein ebazan A,  
 zeru-lurren artean,bi  
 giza gaiztoren erdian dager  
 josita,untzez ta guzti.  
 Nire naimena  
 josi dot,Jauna,  
 gaiztakeritik urruti.

## XII

Aitari deika iltzen da Jesus,  
soina ta burua makur.  
Neuk il dot,oben askotarikoz.  
Azkenengo orduan,uzkur  
ez nadin,betor  
zure itza pozkor:  
"Gaur zagoz zeruan ziur".

## XIII

Jesus lurrera eraitsi dabe,  
Amaren besoetara.  
Semea zauriz,Ama atsekabez.  
Badot emen zer aukera:  
-Zaurion mina  
zaindu,Birjina,  
etor arte BIZTUERA.

## XIV

Kristo lurpean, artzulo baten  
izaraz eta okenduz.

Laster betiko berbiztuko da.

Nire kezka entzun, Jesus:


-Lurrarentzat il,

goian Zugaz bil  
naizu, dantzaz eta txistuz.

## AMAIERA

Gurutze-bide onen indarrez,  
erantzi naitela guztiz  
ezkutuzko oben danen orbanez  
ta ibil nadin zure argiz.

(1966)




### HYMNUS

Virgo,Mater et Regina,  
ad iuvandum me festina,  
ne peream inanis.

Sancta Mater Salvatoris,  
audi precem peccatoris;  
infirmus sum et inops.

Virgo Virginum praeclara,  
respice quam sit amara  
vita iniquitatis.

Regina terrae et coelorum,  
spes et salus infirmorum,  
attende me supplicem.



(Jesus-en Sortzea-XVI. mendea)  
Nafarroa Behereko Ibarrola

Juan San Martin euskaltzainak  
bilatutako apaingarria.

### HYMNUS

*Ecce Deus nobis natus,  
in praesepio circumdatus  
parentum dulci amore.*

*Virgo Mater quae sentiebat  
Joseph corde recolebat,  
cum laetitia et timore.*

*Ego adeo ut adorem  
Puerum meum Salvatorem,  
donum meum dum offero.*

*Accipe meam crucem hic,  
tuis oculis dulce dic,  
iamque portare potero.*

## HYMNUS

Deus,Pater misericors,  
 ecce servus tuus inops  
 ad Te venit rogaturus:  
  
 Da mihi in hac vita pacem,  
 in postrema hora faciem  
 tuam ut videam securus.  
  
 Salvam fac patriam meam,  
 ab excidio serva eam,  
 ne pereat cum malignis.  
  
 Deus meus,omnia mea,  
 lingua nostra euskerea,  
 laudet Te semper in hymnis.

## HYMNUS

Te,Deum,humilis rogo  
 salvam facias patriam meam,  
 cum famulis tuis serves;  
 a dira morte erue eam.  
  
 Quia inimici nostri,  
 veluti canes latrantes,  
 circumdederunt undique  
 filios nostros laborantes.  
  
 Et iam quaerunt quem devorent;  
 est enim illis cor impium,  
 dixeruntque:eradicemus  
 illos de terra viventium.

Audi,Pater,preces nostras:  
 sanguine tuo vulnera  
 nostra sana;salvos fac nos,  
 Euskal Herria atque Euskeria.

## HYMNUS

In die resurrectionis Domini  
 diem Patriae Vasconum celebrantes.  
 Resurrexit,alleluia!  
 Quem quaeritis iam non est hic.  
 Volumus Christum videre!  
 Alleluia,abite hinc!  
 Morti iam mortem intulit  
 qui iugiter victurus est.  
 Ne quaesieritis amplius  
 videre eum qui vobis inest!

## HYMNUS

Alleluia, alleluia!

Salvos fac, Domine, servos  
cum patria. Alleluia! ecce  
Salvatio iam est inter vos.

Christus heri, hodie et semper.

Canta, modulate tibia  
pulsae; ia anima mea,  
canta, Patriae aeternae in via!

Iam sol ascendit igneus  
ut omnia illustret splendore  
novoque igne foveat,  
diei dum fugiunt horae.

Deus, mentem mihi illustra,  
cor accende tuo igne,  
novum diem ut impleam  
divinis praceptoris digne.

Cumque nox venerit atra  
somniumque ceperit fessum,  
divini Solis memoria  
ducat mentis meae gressum.

## INDEX VERSUUM

### orialdea

Alleluia, Euskal Herria.....	31
Ama.....	9
Andre Maria Sortzez Garbia.....	11
Betiko Bazko.....	22
Deadar isila.....	7
Deus meus, ut quid dereliquisti me?.	27
Deus, Pater misericors,.....	56
Ecce Deus nobis natus.....	55
Ergo Tu es rex?.....	25
Et gavisi sunt gaudio magno valde..	29
Gabon.....	18
Gabon Gauean.....	19
Gurutze-Bidea.....	35
Iam Sol ascendit igneus.....	61
Jaunartze.....	32
Jaungoikoaren bila.....	33
Maitasun-iturria.....	20
Otoia.....	8
Pax.....	16

orrialdea

Resurrexit.....	59
Te, Deum, humilis rogo.....	57
Virgo, Mater et Regina.....	53